

BALDINTZA METEOROLOGIKO TXARRAK DAUDENEAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

EUSKALMET - Euskal Meteorologia Agentziak eta *AEMET - Agencia Estatal de Meteorologiak* eguraldi-iragarpenak bidaliko dizkigute egunero, iragarpen horien arabera beharrezko diren neurriak har ditzagun.

Informazioa egunero jasoko da, posta elektronikoaren bidez, Udaltzaingoaren bulegoetan. Beraz, egunero ireki beharko da posta zein eguraldi egingo duen jakin eta horren arabera jokatzeko.

Meteorologia agentzia bietatik ondorengo informazioa bidaliko da egunero (informazio honetan ez dira agertuko egon litezkeen arriskuak edo eguraldi txarrari buruzko abisuak):

Informazioa	Ordua gutxi gorabehera	Edukiaren deskribapen laburra
Biharko iragarpena	10:00 am	Eguraldi-iragarpena 4 egunetarako (gaurkoa eta hurrengo 3 egunetako)
Itsasbazterrerako iragarpena	12:00 am	Itsasbazterrerako eguraldi-iragarpena 2 egunetarako (gaurkoa eta hurrengo egunetako)
Arratsalderako iragarpena	19:00 pm	Eguraldi-iragarpena 4 egunetarako (gaurkoa eta hurrengo 3 egunetako)

Informazio hori zuzenean bidaliko da Udal Zerbitzu Teknikoetara, Turismo Bulegora eta hondartzako salbamendu zerbitzuetara.

Informazio arrunta bere horretan bidaliko da: itsasaldien ordutegia, uraren tenperatura, haizeak, olatuen altuera eta abar.

Eguraldi-iragarpenek arriskuak iragartzen badituzte, abisuak SOS-DEIAKen 112 telefonoaren bidez jasoko dira. Abisu horietan fenomeno meteorologikoari buruzko informazioa eta, abisuak indarrean dirauen bitartean, fenomenoak gaindi lezakeen mugari buruzkoa emango da. Abisu horiek indarrean jarraituko dute, harik eta egoeraren bukaera adieraziz beste abisu bat jaso arte.



ZARAUZKO UDALA

Fenomeno meteorologiko txarren abisuak zein mugatetik aurrera eman EUSKALMETen eta SOS-DEIAKen artean erabakitzen dute; hona hemen muga horiek:


1. Haizeak zuzenean jotzen ez duen zonetan, 80 km/h abiaduratik gorako haizeak; haizeak zuzenean jotzen duen zonetan, 100 km/h abiaduratik gorakoak.
2. Arriskua itsasbazterrean: olatu handiak, 3,5 metrotik gorakoak.
3. Arriskua itsasbazterrean: enbata edo antzeko fenomenoak.
4. Prezipitazio handiak: ordubetea 30 litro edo gehiagoko pilaketa.
5. Prezipitazioak aterrunerik gabe: 60 litro edo gehiagoko pilaketa 24 ordutan.
6. Tenperatura altu iraunkorra: 3 egun edo gehiagotan, tenperatura minimoak 19°C-tik gorakoak eta maximoak 30°C-tik gorakoak.
7. Muturreko tenperatura altuak: tenperatura maximoa 35°C baino altuagoa.
8. Tenperatura baxu iraunkorra: 3 egun edo gehiagotan, tenperatura maximoak 3°C-tik beherakoak.
9. Muturreko tenperatura baxuak: tenperatura minimoa -3°C baino baxuagoa.
10. Elurra: 1.000 metrotik behera egingo dela aurreikusten bada.

Horrelakoetan, SOS-DEIAKek abisua emango dio Udaltzaingoari eta honek informazioaren berri emango die Udal Zerbitzu Teknikoei, Suhiltzaileei, salbamendu eta sorospen taldeari, babes zibileko taldeari eta itsasertzean dauden establezimenduei, horiek dagozkien neurriak har ditzaten.

Udaldian, enbata, itsaskia eta horrelako fenomenoak aurreikusten direnean, hondartzako salbamendu eta sorospen zerbitzuek megafonia bidez emango diete horien berri hondartzako erabiltzaileei.

Protokoloan azaldu bezala, hona hemen jarraitu beharreko prozedura:

EGUNEROKO EGURALDI-IRAGARPENAK:





ZARAUZKO UDALA

ABISUAK FENOMENO METEOROLOGIKO TXARRAK DAUDENEAN:

